

Igerabide: «Udazkenetik begiratzen diot bizitzari»

Bizitzaren inguruan gogoeta egiten duten «europeko poemak» bildu ditu idazleak 'Lainoa jenez' liburu berrian • Helduleku eta «tonu ugaritako» alez osatu du lana

Ainhoa Sarasola Donostia

«Euria memorian/ erdi bi egina/
min eta musu-muinka/ tantarik
tanta. / Memoria eurian/ urtaroz
urtaro atzeraka/ lainoa jenez/
ahantzuraren kontra:/ udazken,
uda eta udaberri,/ eta negua den-

boran galdua./ Lainoa jenez,/ za-
hartzaroa.». Hala dio *Euria erdi
bi* poemak, *Lainoa jenez* liburua-
ri hasiera ematen dionak. Bizitza-
ri buruz gogoeta egiteko, memo-
ria, udazkena, euria eta halako
osagaiekin ondu baitu bere poesia
liburu berriena Juan Kruz Igera-

bidek (Aduna, Gipuzkoa, 1956).
«Memoriarekin atzera egiten da,
udazkenetik abiatu, uda, udabe-
rri eta neguan amaituz. Liburu-
a hala antolatua dago, alderantziz,
memoriaren erritmoan», azaldu
du egileak. Erein argitaletxeare-
kin kaleratu berri du lana.

Lainoa jenez «nolabait udaz-
kenaren irudi bat» dela dio egile-
ak: «Udazkenetik begiratzen diot
bizitzari, jada udazkenean sartua
nago, eta oraindik ez dut ikusten
ongi zertan ibili naizen bizitza ho-
netan, beraz, lainoa jenez jarrai-
tzen dut gogoeta egiten». Libu-

ruan jasotakoak «europeko poe-
mak direla» dio, azken sei-zortzi
urteotan landutakoak. «Euriaren
inguruan ibili naiz azken urteot-
an, eta hau errematea izango li-
tzateke. Euria jalo eta berehala
hiltzen da, desagertzen da, eta ho-
rrek nolabait bizitzaren irudi bat
eskaintzen digu».

Hari horri jarraitzen dio *Lagu-
naren emaztea* izeneko poemak,
pertsone bati eskainitako liburu-
ko ale bakarrak. *Mameni* du ida-
tzia goiko aldean, eta laz hildako
lagun minari eskaini dio egileak.
Azken egunak bere liburu bate-
kin eman zituela jakiteak hunki-
tua utzi zuen Igerabide. «Nire-
tzat, heriotza hori bizitzaren akui-
lu bat izan da; bera joan da, baina
bizitzeko gogoia berritu dit. Uste
dut poema hauetan, lainoa jenez
atzera begira jartzen naizenean,



Aintzane Galardi eta Juan Kruz Igerabide, beren liburu berriak eskuetan, atzo, Donostian egindako aurkezpenaren aurretik. GORKA RUBIO/ARGAZKI PRESS

Marokoko usainak poesia bihurtu ditu Galardik

A. S. Donostia

Marokora hainbat aldiz joan izan da urteotan Aintzane Galardi (Oartzun, Gipuzkoa, 1969). «Gauza askorengatik da berezia Maroko, baina, niretzat, bidaiak horietan usainenak garrantzi handia izan zuen, eta, usain guztietatik bat aukeratu behar banu, hori mendafina izango litzateke, hango teari darion usaina». Maiz

aipatzen du usain hori bere poe-
metan, eta iluntzean han hartzen
den teak «xarma berezia» duela-
koan, *Mendafin usaineko ilun-
tzeak* jarri dio izenburu bere poe-
ma liburu berriari. Blas de Otero-
Bilbo Uri saria jaso zuen liburua
argitara eman du orain Ereinek.

Bidaiak horien eraginpean sortu
ditu Galardik liburuko poemak.
69 jaso ditu guztira, eta hiru atale-
tan banatu. *Urdinguneak Atlase-*

ko zerumugan izenekoan, «kul-
tura berri bat deskubritzean sor-
tutako sentsazioak» hizpide di-
tuztenak bildu ditu. *Kelaat M'-
Gounako ilunabarrak* atalean,
berriz, Atlaseko herrixka batean
amazig familia batekin igarotako
uneak azaltzen dituztenak jaso
ditu. Eta bidaiatik itzultzean,
«distantziatik eta oroitzeneta-
tik» idatzitakoak dira *Gauaz ha-
raindiko palmondoak* azken ata-

leko poemak. Egileak berak ondu
ditu liburuko ilustrazioak ere.

Gaiak ez ezik, pertsonaiek ere
ematen diote batasuna liburuari,
hainbat poematan agertzen baiti-
ra batzuk, turista bat edo amazig
famiiliako kideak, kasurako.
Hainbatetan, poeta bera da nar-
rratzailea, baina badira bigarren
eta hirugarren pertsonan idatzi-
takoak ere, ume baten begirada-
tik, esaterako. Askok dute beste

egile baten aipua sarrera gisa, ira-
kurritakoak nahiz bilatu eta jaso-
takoak. «Gogoko ditut. Askotan,
aipuok norabidea markatzen du-
te nire poemetan; batzuetan osa-
tzeo eta besteetan edertzeko di-
ra. Poemaren materiala dira».

Poesia idaztean egilea guztiz bi-
luzi ohi dela esaten bada ere, Ga-
lardik dio bere kasuan ez dela era-
bat hala izan. «Errealitate batetik
beste errealitate bat sortu dut».


mina badagoela; min asko daude, ugari, eta oso zorrotzak batzuk, baina bizitzeko gogoia berpizten didaten minak dira, eta talaiak horretatik idatzia dago», azaldu du.

Azken batean, bizitzaren inguruko gogoetak azaleratzen dituzte liburuko poemek. Filosofia sarri aipatzen da, adibidez. «Baina, nolabait, filosofia praktikoa bat da, alegia, saiatu naiz behintzat elukubrazioak ez izaten», azaldu du Igerabidek. Zientziari egiten diote aipamena beste batzuek, «tonu ugariak poemak» baitaude lanean. Handinahi agertu gabe egin nahi izan dituela aipuko dio idazleak, eta hor daudela, «bizitzaz gogoeta egitean heiduleku bila».

Musikarekin elkarriketan

Liburuan, halaber, musikarekiko «etengabeko elkarriketa bat» dagoela dio egileak, batzuetan aipatua eta beste batzuetan erri-moaren edo irudien bidez agertzen dena. «Musika hain arte zehatza da, ia matematikoa izanik, ez dakigu zertaz ari den. Hor daukagu, gizakiaren hasieratik, eta nire azalpenak da nolabait bizitzaren misterioak eta guk ikusten ez dugunaz mintzatzeko modu bat dela». Musika egitean bizitzaz sakonean hitz egiten dela uste du Igerabidek. «Ebasorako ere erabiltzen dugu, baina sakonera josten dugunean, musikak durduzatu egiten gaitu. Durduza horretatik sortzen da arte guztia, nire uestez; durduza horretatik sortzen dira poemak, baita irudi pikturikoak ere. Poeta batzuek badute abilitadea pintatzeko, baina beste batzuk hitzekin saiateren gara margotzen». Artea, maiz, «nahi gabe ateratzen den hori» izaten dela gehitu du. «Zu ahaleginean ari zara, eta nahi ez duzun gauza asko ateratzen dira; askotan, hori izaten da poemarik ederrena».

2009an kaleratu zuen idazleak bere aurreko poesia liburua, *Aienatze-marra*. Poesia zertarako idazten ote duen, zertarako argitaratzen, gelditzeko garaia ez ote duen, bere buruari maiz egiten dizkion galderak direla azaldu du Igerabidek, baina «harra» berriro sortu ohi zaiola. Horri azalpena ematen saiatu zaio *Ez gehiago idatzi* poeman: «Ez gehiago jasan idatzi-behar hau, / amaitu behingoz / Olentzerori idazten hasi nintzen / gutun sekretu hura / konturatu nintzelarik / gauzak okerrera zihozazela ezinbestean / eta izaki magikoren bati / laguntza eskatu beharko niola bertsotan / zeren beste guztiak lanpeturik baitzebiltzan / amaierarik gabeko egin-beharretan / Eta hau oraindik ez da amaitu.».



Piarres Aintziart, Nafarroan filosofatuz liburuaren egilea. NORIA ARBELBIDE LETE

Filosofiaz busti bidaiaria liburua

Donejakue bide nafarra oinarri, Piarres Aintziartek 'Nafarroan filosofatuz' liburua argitaratu du

Nora Arbelbide Lete Baiona

Atzo bertan Logroñotik (Espainia) oinez ibiltzekoa zen Piarres Aintziart (1937, Heleta). Kirolzalea izan da betidanik, eta oinez ibiltzeaz aspalditik usatua da. Aljeriako gerlan ere, soldadu gisa kilometroak eta kilometroak egiten zituen: «Aljerian hartu dut ibileraren gustua. Enetat, hasteko, deskantsu bat zen. Ene barneko problemak edo gerlaren beldurrik ahanzen nituen ibiltzen baikinen azkarki», gogoratu zuen idazleak liburuaren aurkezpenan.

Donejakue bidea ere, lau aldiz egina zuela, bosgarrena burutu zuen azkenean, Nafarroako zatira mugatuz. Orreagatik Vianara. Sei etapa orotara. Baina aldi horretan, esku izkribua zakuan, bidean gaindi biziak eta gogoetatuek idazteko gisan. Ez dakiela gehiago ea ibiltzen den idazteko, edo idaztea ibiltzeko aitzakia duen: «Biak ezkonduak dira». *Nafarroan filosofatuz* (Elkar) bidaiaria liburua idatzi horietatik abiatzen duen emaitza du idazle heletarrak. *Azken apeza* (2005, Elkar) bere azken liburutik hamar urtera.

Geografia bat agertzen da liburu honetan. Izenburutik beretik azaldua. Nafarroa. Donejakue bideaz gain, Bardea eta Irati ibaiak

ere sartzen duela geografia horretan. Lekuen historiaz gain, lekuek bere baitan sortuak ditu kontatzen liburuan. Xarles Bidegain euskaltzain eta ikerlariak honela laburbiltzen duena liburuko sarritan hitzean: «Bere bizitzaz eta bere buruan dituen eta izan dituen gatazken berri ematen digu, onestasan handiz».

Aintziartek zehaztu duenez, ez da beldur «ni» errateko. «Liburu batean nor mintzaten da? Autorea». Ostatu solas bateko hizlariaren pare ezarri duen autoreak: «Funtsean, ostatu batean edo mintzatzeko garelarik, bakoitzak bere biziaz edo, bere iritzia ematen du. Beraz, zergatik ez liburu batean?».

Bakarrik egin baditu ibilaldi horiek, liburuan agertzen da ez dela hain bakarrik ibili, ororen buru, Aintziart. Ukan du norekin solastatu. François Villon poeta frantsesa eta Piarres Topet *Etxahun* koblakari zuberotarrak hor ditu bide lagunak. Biak erromesak izanak. Horien zenbait kopia liburura ekartzeko baliatzen da idazlea. Eta Donejakue bideaz kanpoko beste bidaietan ere bide-lagunak ez ditu eskas Aintziartek. Hor daude Manex Erdozaintzi Etxart poeta oztibartarra edo Marcel Proust idazlea. Horiek ere, hurbiltasun sinple batekin ekar-

tzen ditu liburura. Adibide bat emateko, liburuan kontatzen du nola Prousten *Swannen etxeko aldean* berriz irakurri duen bidaiatik etxera sartzerakoan, eta ondotik hau idazten du liburuan bertan: «Idazlearen hitzen graziaz Nafarroako esperientzia [...] Bistan denez haur burgesaren esperientzia delikatuak ez zen laborari semearena, baina oroitzapenek substantzia bera daukate, eta xarma berdina».

Beti filosofatzeko aitzakia ditu idazlearen idatzi eta gogoetak *filosofatuz*, izenburuko bigarren hitzaren haritik. Filosofo gisa eza-gutu andana bat ere ekartzen ditu

gain, irakurleak berak egin ditza-keen gogoetei atek irekitzen dizkie. Filosofia bizirik hurbil jartzen du Aintziartek.

Umorea ez du eskas

Umorerik ere ez du eskas. Horren adibide, Bardeako Arguedas herriko Hernani izeneko ostatuako pasarte. Hortxe irudikatzen ditu Platon, Spinoza eta Agustín Hiponakoa, Tomas Akinokoa eta Averroes. Bilintz eta Friedrich Nietzsche ere aipatzen ditu, biak elkar-tutuz zaldiekiko zuten harremanetatik: «Bilintzek izugarri maitezituen zaldiak. Zaldi mehatuak ikusten zituen, kargatuak, unatuak. Eta Nietzschek burua galdu zuela, Turin hirian zaldi bat besarkatzen joan zen».

Denak haragizko bilakatzen ditu, deskribatuz zinez hor balira bezala, *Marca* egunkaria irakurtzen eta guzti: «Egoera asmatua da, baina haien ideiak ziren bezala jarri ditut», abisatu du halere.

Ororen buru, «jostatu» dela laburbildu zuen Aintziartek: «Plazer hutsez egin dit azken kapitulu hori. Pentsalari, teologo eta filosofo horiek gure problema berak erabili dituzte. Horiek denak gure bidelagunak dira».



Ostatu batean mintzatzeko garelarik, bakoitzak bere biziaz edo, bere iritzia ematen du. Zergatik ez liburu batean?»

Piarres Aintziart
idazlea

Aintziartek liburuko digrestoe-tan. Filosofiak ikasirik, Orthezen (Biarno) latin eta filosofia irakasle egona da Aintziart. Filosofoen gogoetak ere bere gogoeta propioei erliebe baten emateko erabiltzen ditu. Baina kurtsu akademikoetatik urrun. Gogoetak borobiltzeaz